

KONTZERTUA BAIONAN

CONCERT À BAYONNE



Bernat Etxepareren idazlanak garaiko musikan jarriak
Les textes de Bernat Etxepare mis en musique de l'époque

DOHAINIK - ENTRÉE LIBRE

ABENDUAK 19 DÉCEMBRE - 20:00

Espiritu Sainduaren elizan

Collégiale de Saint-Esprit



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE
antolatzailea



Bayonne
BAIONA-PAYS BASQUE

partaideak

Danserie ensemble taldeaz

Danserie taldea Iruñean sortu zen duela 25 urte, eta antzinako musika ikertzen eta interpretatzen du. Hamar musikari profesionalek parte hartzen dute taldean, eta garaiko musika-tresnen kopiak jotzen dituzte kontzertuetan: Errenazimentuko flautak eta txistua, txirimia, zeharkako txirula barrokoa, zango-biola, biolontxelo, klabezina, nickelharpa, zanfoña, lautea etab. Era berean, Errenazimentu eta Barroko garaietako tekniketan eta moldean jotzen dituzte musika-tresna horiek.

Bernat Etxepare diskoaz

Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae liburua* (1545) garaiko musikan jarri du taldeak. Azken zortzi urteotako lan sakonaren fruitua da CD hura. Bere liburuaren aitzin-solasean Etxeparek argi erraten digu kantatzeko idatzi zituela bertso horiek, eta taldeak bete egin du desira hura: "... bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraiteko materia".

Errenazimentuan oso maiz erabiltzen zen "contrafactum" izeneko teknika baliatu du Danserie taldeak, hau da, poesia bati bere metrikarekin bat egiten duen doinu bat egokitzea bertsoak kantatu ahal izateko. Hain zuzen ere, Erdi Aroko, Errenazimentuko eta hasierako Barroko garaiko doinuak hartu ditu, horietarik batzuk Euskal Herriko antzinako doinuak.

Diskoa grabatzeko, hizkuntza zaindu du bereziki, eta, horretarako, funtsezkoak izan dira grabaketan parte hartu duten Nafarroa Garaiko eta Behereko kantariak: Marta Huarte, Ezkirozko sopranoa; Andoni Sarobe, Arantzako baritonoa; Guy Saldubehere, Aldudeko tenorea; eta Ihitz Iriart, Zuberoako kontralto. Era berean, hainbat filologo eta historialariren laguntza izan du taldeak.

Grabazioaz gain, Danserie taldeko Koldo Azkonak Nafarroako Errege Artxibo Nagusian ikerketa sakona egin du. Emaiza arrunt interesgarria izan da: Etxepareri buruzko eskutitz bat, egundaino ezezaguna, eta bere bizitza pertsonalari buruzko informazio berriak, arrunt deigarriak.

Baionako kontzertuaz

Bernat Etxepareren albumaren asmoaren tamaina ikusirik, Euskaltzaindiak babesa eman dio proiektuari, eta aurkezpen kontzertu batzuk antolatu ditu Euskal Herrian zehar. Baionako Euskal Museoak, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburua (1545) aterpetuko zuela jakitean, disko berezi hura Baionako publikoari aurkezteko garai egokia zela ohartu eta abenduaren 19an, 20:00etan, Baionako Espiritu Sainduaren elizan (geltoki parean) doan eskaintzea erabaki du, Baionako Euskal Museoarekin, Baionako Udalarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin partaidetzan.



**Kontzertua doan
informazio gehiago
jiroz@euskaltzaindia.eus**

antolatzailea

partaideak



Danserie ensemble - le groupe

Le groupe Danserie, fondé à Pampelune il y a 25 ans, recherche et interprète la musique ancienne. Les membres du groupe sont des musiciens professionnels, ils jouent avec des copies d'instruments de musique de l'époque durant les concerts : des flûtes et sifflets de la Renaissance, chirimia, traverso baroque, viole de gambe, violoncelle, clavecin, harpe en nickel, zanfoña, luth, etc. En outre, ils jouent de ces instruments de musique selon les techniques et le style des périodes Renaissance et baroque.

Le disque Bernat Etxepare

Le groupe a ainsi mis en musique de l'époque le livre *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) de Bernat Etxepare. Ce CD est le fruit d'un travail approfondi de ces huit dernières années. Dans l'avant-propos de son livre, Etxepare dit clairement qu'il a écrit ces vers pour les chanter, et le groupe a donc réalisé ce désir de l'auteur.

Le groupe Danserie a utilisé une technique appelée « contrafactum », très souvent utilisée à la Renaissance, c'est-à-dire adapter une mélodie à un poème qui correspond à sa métrique afin de pouvoir chanter les vers. Il a en effet repris des airs du Moyen Âge, de la Renaissance et du début du baroque, dont certains sont des airs anciens du Pays Basque.

Pour enregistrer l'album, il a apporté un soin particulier à la langue, et pour cela les chanteurs de Haute et Basse-Navarre qui ont participé à l'enregistrement ont été essentiels : Marta Huarte, soprano d'Ezkiroz ; Andoni Sarobe, baryton d'Arantza ; Guy Saldubehere, ténor des Aldudes ; et Ihitz Iriart, contralto de Soule - Zuberoa. Le groupe a également bénéficié du soutien de plusieurs philologues et historiens.

Outre l'enregistrement, Koldo Azkona du groupe Danserie a effectué des recherches approfondies aux Archives Générales Royales de Navarre. Le résultat fut intéressant avec la découverte d'une lettre sur Etxepare, inconnue à ce jour, et de nouvelles informations sur sa vie personnelle, étonnamment ordinaires.

Le concert à Bayonne

Compte tenu de son ampleur, l'Académie de la langue basque a décidé de soutenir ce projet en organisant une série de concerts de présentation sur l'ensemble du territoire.

En apprenant la nouvelle de la venue au Musée Basque de l'exemplaire original du premier livre publié en langue basque *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) cette fin d'année, l'Académie a trouvé opportun de proposer ce concert exceptionnel au public bayonnais en partenariat avec le Musée basque de Bayonne, la Mairie de Bayonne et l'Office public de la langue basque.

Ainsi le concert aura lieu gratuitement le vendredi 19 décembre à 20h00, à l'Église de Saint-Esprit (face à la gare) à Bayonne.



ENTRÉE LIBRE

**Plus d'informations :
jiroz@euskaltzaindia.eus**

antolatzailea

partaideak



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Bayonne
BAIONA-PAYS BASQUE